

@@@AGINDUA, 2011ko uztailaren 4koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Mungiako (Bizkaia) «Fundación Escuelas Ventades» Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren baimena aldatzeko dena.@@@

Mungiako (Bizkaia) «Fundación Escuelas Ventades» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren entitate titularraren ordezkariak abiarazi duen espedientea aztertu da, non baimena eskatzen baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasteko eta Haur eta Lehen Hezkuntzako unitateak gehitzeko.

Espediente hori Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritzak izapidetu du, arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek hari buruzko txostena eman dute.

Arau hauek hartu dira kontuan: 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa (1992ko apirilaren 9ko BOE); 132/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeentzako gutxieneko baldintzak ezartzen dituen (2010eko martxoaren 12ko BOE); 215/2004 Dekretua, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen (azken dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan) (215/2004 Dekretua, 2004ko azaroaren 19ko EHAA); eta gai horretan aplikatzekoak diren gainerako arauak. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Jarraian zehazten den ikastetxe pribatuari baimena ematen zaio Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakasteko, eta Haur Hezkuntzako 1. zikloko 3 unitate, Haur Hezkuntzako 2. zikloko 3 unitate eta Lehen Hezkuntzako 2 unitate gehitzeko, 2011-2012 ikasturtetik aurrera

Kode-zenbakia: 48006279.

Izen generikoa: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoa: «Fundación Escuelas Ventades».

Titularra: Fundación Escuelas Ventades.

Helbidea: Bentades 7.

Udalerrria: Mungia.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimena:

- . Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irakastea; 4 unitate.
- . Haur Hezkuntzako 1. zikloko 3 unitate gehitzea.
- . Haur Hezkuntzako 2. zikloko 3 unitate gehitzea.
- . Lehen Hezkuntzako 2 unitate gehitzea.

Ikastetxearen osaera:

- Haur Hezkuntzako 1. zikloa: 6 unitate. Edukiera:
 - . 2 unitate, urtebetetik beherako ikasleentzat; 8 ikaspostu, unitateko.
 - . 2 unitate, urtebetetik bi urtera bitarteko ikasleentzat; 13 ikaspostu, unitateko.
 - . 2 unitate, bi urtetik hiru urtera bitarteko ikasleentzat; 18 ikaspostu, unitateko.
- Haur Hezkuntzako 2. zikloa: 6 unitate, 150 ikaspostu.
- Lehen Hezkuntza: 8 unitate, 200 ikaspostu.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 4 unitate, 120 ikaspostu.
- Hezkuntza Berezia: unitate 1.

2. artikulua.- Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimendutako unitateetako irakasleen titulazio akademikoari dagokionez. Bestela, baliogabetu egingo da emandako baimena.

3. artikulua.- Martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikingintzaren Kode Teknikoa bete beharko du ikastetxeak, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxeko titularrarena izango da baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen edo diru-laguntza deialdien bitartez laguntzarik lortuko denik.

Bigarrena.- Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakiok Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 4a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.